

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko.
Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan

Urzelai-Vicente, Ainhoa
(Mondragon Unibertsitatea eta MHLI)¹

Laburpena: Joseba Sarrionandiaren Haur eta Gazte Literatura aztertu, bertan lantzen dituen gaiak jaso eta baliatzen dituen teknikak azaleratzea da lan honen helburu nagusia. Horretarako, iurretarrak sortzez euskaraz idatzitakoak hartu dira aztergai, hamaika lan guztira. Analisiak agerian jartzen duen moduan, Sarrionandiak leihoak irekitzen dizkio irakurleari, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko gonbita eginez. Bidaia horretan, Euskal Herriko egoera sozio-politikoa aztertzeke aukera ematen da eta gure herriak bizi izandako gatazka armatu zenbaiten berri ematen da. Horrez gain, lurralde urrunetako kulturak eta gatazkek aipatzen dira. Kulturantzitasuna bultzatuz, elkarrekiko errespetuan eta askatasunean oinarritutako jendarteak aldarrikatzen da, beste ikuspuntuak amestitzen dituen eta ideologia, orientazio sexual zein izaera ezberdinak onartzen dituen. Horrela, maiz umorea eta ironia erabiliz, kritika egiten zaio kolonialismoari, indarkeriaren erabilerari, gerrari, zentsurari, debekuei edo bestelako zapalkuntzei. Helduei zuzendutako lanetan bezala, HGLn ere erbestearen gaia ageri da maiz, eta horri lotuta, aberriaren inguruko gogoetak. Gehienetan haur eta gazteak dira protagonista nagusi eta haien begirada inozentetik eraikitzen da kontakizuna, testuaren hartzailaren identifikazioa erraztuz. Sarrionandiak maiz interpelatu du irakurlea eta bere testuek irakurle aktiboa eskatzen dute, sinbolo eta metaforen atzean ezkutatutako esanahiak argitzeko. Iurretarrak daukan ezagutza entziklopediko zabala agerian jartzen dute obretan ageri diren lotura intertestual guztiek eta horiek antzemateko irakurle trebea eskatzen da. Sarrionandiak haurren heldutasuna defendatzen du eta moralismoan erortzen ez diren liburu dibertigarriak sortzen ditu, umeen galderei erantzuna ematen dietenak. Horrez gain, etxeko erosotasuna utzi eta mundua deskubritzera abiatzeko gonbita egiten da liburuotan, itsasoa hartuz abentura berrien abiapuntu gisa.

¹Argitalpen hau Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikerketa-taldearen baitan gauzatu da: Euskal Herriko Unibertsitatearen (US21/15 proiekturako); eta, MICIU/AEI/10.13039/501100011033 eta FEDER, EB erakundeek (PID2021-125952NB-I00 proiekturako) babesa jaso du.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

1) Joseba Sarrionandiaren Haur eta Gazte Literatura

Euskal letretan Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958) da aurkezpenik behar ez duen sortzaile horietako bat. Rodriguezek (2013) agerian utzi zuen moduan, musikari ugarik baliatu ditu bere hitzak gerora ezagunak egin diren kantuak sortzeko eta hainbat sortzailek erabili ditu bere lanak ikuskizunak taulartzeko. Badago haren bizitzako pasarte batean oinarrituta sortutako kanturik ere. Iurretarrak atzerriko autore andana eman du ezagutzera euskaraz, dela hizkuntza hegemonikoetan idatzitako egileen lanak itzuliz, dela hizkuntza gutxituetako literaturaren berri emanez. Genero anitz landu ditu Sarrionandiak (poesia, nobela, ipuingintza eta saiakera besteak beste) eta arras oparoa da hainbat aldiz saritua izan den bere ibilbide literarioa. Literatura eskaintzen dio irakurleari eta darabiltzan baliabide literarioen atzean, pentsalari eta ikertzaile handi baten luma trebea nabari da. Hori da, hain zuzen, bere liburuek agerian jartzen dutena. Inguratzen gaituen munduari buruzko ezagutza zabala eskaintzen dio Sarrionandiak hartzaileari, betiere irakurlearen jarrera kritikoa eta hausnarketara bideratutakoa bultzatuz. Arestian aipatutakoagatik, iurretarrak ekarpen eztabaidea egin dio euskal literaturari eta are euskal gizarteari. Baina horiek ez dira euskal letretara soilik mugatzen, kanpoan ere izan baitu oihartzuna bere sorkuntza literarioak, itzulpenei esker hein handi batean. Asko dira mintzagai dugun idazlearen ekoizpena aztertu duten lanak, baina obra oparoa izanik, beti dago zer esana; beti dago kontribuzio berririk egiteko, dela argitaratutako obra berri baten kariatara, dela bere edozein obra beste ikuspuntu eta metodologia batetik aztertu delako. Egia esan, badago ikertzailearen arreta txikiagoa bereganatu duen Sarrionandiaren argitalpen mota bat: Haur eta Gazte Literatura (hemendik aurrera HGL). Horregatik, artikulua honek Sarrionandiak eremu zehatz horretan egindako produkzioa aztertu nahiko luke. Sortzez euskaraz idatzitakoak hartu dira ikergai eta hainbat geldialdi dituen bidaia bat proposatzen da, bere lanak ezagutzera emateko eta haietan egiten den ekarpena nabarmentzeko.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

2) Bidaia abiatzeko gonbidapena. Leihoak marrazten dituen neskatoa

Altxorren mapak besapean
etxea utzi eta ondinen
abestien xerka abiatu ninduzun².

Liburuaren azaletik bertatik irakurlea hartzaile aktibo bihurtzen duen *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* (2010) obrarekin hasiko dugu ibilaldia. Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendutako lan honek Lierni Altuberen irudiz lagundutako ipuin laburrak biltzen ditu bere 176 orrialdeetan barrena. Leihoak margotzen dituen neskatoa aurkezten zaigu, leiho guztiak zabalik pintatzen dituen gaztea. Eta Dalí-ren 1925ko koadro errealista ezagunean bezala (*Muchacha en la ventana*), gaztea leihotik begira jartzen du, itsasoa aurrean duela. Baina aitzinean daukan paisaiaren ikusle huts izan ordez, Sarrionandiak leiho irekia zeharkatu eta itsasoan barneratzeko abagunea eskaintzen digu, kanpoan dagoen mundu zabalaren berri izateko. “Ipuina” izeneko kontakizunak ematen dio hasiera abenturari eta obran zehar aurkituko duguna aurreratzen du, alegia, haurrei kontatzeko moduko istorioak. Bertan aita batek ipuin bat kontatzen dio haurrari eta hastapen molde hori bat dator lan honetan komentatuko dugun beste liburu baten hasierarekin (*Munduari bira eman zion ontzia*). Sarrionandiaren HGLn behin baino gehiagotan aurkituko dugu haurrak helduari istorio bat kontatzeko egiten dion eskaera. Horrekin batera, mintzagai dugun liburuan badago betaurrekoak eskatzen dituen haur bat, helduek bezala, haiek jantzi eta irakurtzen ikasi nahi baitu. Ikus dezakegunez, istorio berrien egarri dira iurretarraren ipuinetako pertsonaiak.

Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako liburuko ipuin batzuk Euskal Herrian girotuta daude eta horietan zenbait kritika hauteman daitezke, zeharka bada ere. Horrela uler daiteke Guardia Zibilaren erruz haien helikopteroarekin talka egin eta istripua izaten duen sorginaren ipuina, zeinetan argi adierazten den airea euren balitz bezala ibiltzen dela Guardia Zibila zeruan. Sorginak aipatu ditugula, bada haien inguruko ipuin errealistagorik. “Inkiszioa eta sorginak” kontakizunean, inkiszioak aurrera eramandako auzi larriak aipatzen dira, baita

² Sarrionandia, Joseba. “Etxera itzuli”. *XX. mendeko poesia kaierak*. Zarautz: Susa, 2002.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

erabiltzen zituzten torturak azaldu ere. Ipuinaren amaieran azpimarratzen da errea izateko beldurrez jende asko isildu egin zela; baina beste askok laguna saldu zutela, beldurragatik eta koldarkeriagatik. Jarrera horrek Euskal Herrian zein eragin izan zuen azaltzen da ipuin honetan. Isiltasunari eta laguna saltzeari buruz ari garela, ezin aipatu gabe utzi euskararen debekuarekin lotutako ipuinik ere aurki dezakegula. “Zotza” ipuinean adibidez, XVIII. mendetik XX. mendera euskararen aurkako ohiko metodo pedagogikoa hartzen du ahotan narratzaileak, Hego Euskal Herrian *eraztuna* izenarekin eta Iparraldean *Anti-basque* edo *boule basque* izenarekin ezagutzen dena. Kontakizuna 1943. urteko Zuberoan kokatuz, 7 urteko mutiko batek euskaraz mintzatzeko debekua eta anti-basque zeritzona nola bizi izan zuen jaso dezake irakurleak. *Je ne parlerai pas en basque*. Ez dut euskaraz hitz egingo. Horixe izan zen urte luzez euskaldun askorentzako agindua. Nork bere hizkuntzan hitz egiteko debekua ezeztatu zenean ere, askok euskaraz hitz egin gabe jarraitu zuten. Eta egoera paradoxiko hori dakarkigu “Hizkuntza” ipuinak, bi jokabide aurrez aurre jarritz: euskara debekatuta egon arren haien hizkuntzari heldu zioten zaharrak batetik eta mintzatzeko aukera guztiak izanda ere, erdaretan mintzo diren gazteak bestetik. Bada “literatura fantastikoa” izena daraman arren, errealitatearekiko egiantz handia duen ipuin bat. Idazleak narrazio fantastiko bat idatzi du eta zirriborroa zentsuratzailerik ofiziala den lagunari ematen dio, iritzia eman diezaion: Lur izeneko planeta kaskar batean bizia dago eta hango humanoek itsasontziak, gerlak eta abar dituzte. Gehiegizkoa iruditzen zaio liburua eta epai horren ondorioak ematen ditu jakitera autoreak: “Liburua ez zen argitaratuko. Zigortu egingo ninduten [...]. «Eta zer esan nahi duzu euskaraz diozunean?», esan zidan oraindik Sejaboririasaandonek, erdeinu barre gogoangarriarekin. [...] Ohiko zigorra betiereko erbestea zen, hain zuzen Lurra deritzan planeta urrun, bakan eta mortuan” (167). Narrazio horretan, berriz ere euskara aurkitzen dugu jomugan; eta erbesteratua izateko beldurrez dagoen idazle bat. Artikulu honetan gehiago sakonduko ez dugun arren, aipatzekoa da erbesteak alderik alde zeharkatzen duela ia 40 urtez atzerrialdian bizi izandako Sarrionandiaren literatura. Gai hori bereziki helduei zuzendutako obretan ageri

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

bada ere, HGL ez da salbuespen³. Beste tonu umoretsuago batekin, baina kritikaren hariarekin jarraituz, Lekeitioko antzar eguneko tradizio polemikoa ageri zaigu “Antzarabidea” ipuinean. Kontakizunean, baina, gizakia da sokatik eskegitzen dutena. Amaieran dator ipuinaren muina eta irakurleari helarazi nahi zaion mezua: “Hala ere, ez da antzara guztiei gustatzen zaigun ikuskizuna. Batzuei ez zaigu antzarabidezkoa iruditzen. Bada ohitura horretan, gure ustez, antzaren duintasunaren kontrakoa den zerbait. Ikuskizuna besteen minaren gainean eraikitzea edo” (51). Horra hor beste testuinguru batzuetara estrapolatzeko moduko mezua.

Arestian aipatu dugun moduan, *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* obran bidaia bat eskaintzen da. Kalaportuko itsasoa ezagutuko du irakurleak, Sarrionandiaren unibertso literarioan hain ezaguna den espazioa; eta itsasoa zeharkatuz, Euskal Herriko mugetatik harago eramango du irakurlea: Ingalaterrara, New Yorkera, Venezuela eta Brasil arteko gune naturalera, Basamortua zeharkatuz Siwako oasira, Freetown hiriko kaleetara, Hong Kong hiriko portura edo Groenlandiako herrixka hotzetara, besteak beste. Toki horietatik guztietatik mundua nola ikusten den eta biztanleak nola bizi diren erakusten digute Sarrionandiaren ipuinek. Baieztapen horren erakusgarri da liburuaren hastapenean aurki dezakegun “Sortaldea” ipuina. Bertan munduko hainbat bazterretatik eguzki berberari begira ari diren pertsonaiak ageri zaizkigu eta eguzkia irteten ari den momentuan zertan ari diren deskribatzen du narratzaileak. Kontakizun sinplea bezain bitxia da, oso ondo irudikatzen baita munduko bazter batean ala bestean bizitzeak sortzen duen errealitate ezberdina. Munduari begiratzeko bi modu nagusi daudela iruditzen zaigu: Azalean geratzen dena da bat, postaletan ageri dena, edertasuna bilatzen duena eta kontrastei erreparatzen ez diona. Bigarren begirada motak ordea, xehetasunei erreparatzen die, begirada pausatua eskatzen du eta koloreak antzematen ditu. Gauzen alderdi ilunei ere erreparatzen die, argiak eta itzalak identifikatuz. Bigarren begirada hori eskaini eta eskatzen du Sarrionandiaren obrak eta hori ondo daki mundua pintatzeko agindua duen eta hiru koloreekin nahikoa ez duen neskatoak. Xehetasun txiki batetik abiatuta munduaren engranajea jartzen dute agerian ipuin askok, eta hori ondo

³ Irakurleak Eizagirrerren (2022) “El exilio como lugar de enunciación en la obra de Sarrionandia: silencio y búsqueda de la escritura contrapuntística” artikulura jo lezake erbesteak Sarrionandiaren lanean izandako eraginaren berri izateko.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

ezaugarritzen du “Xakea” izeneko ipuinak, bereziki adierazgarria iruditzen zaiguna. Bigarren pertsona erabilita, era bitxian interpelatzen da irakurlea, efektu indartsuagoa lortuz. Sei urteko neskato bat xakean ari direnengana gerturatu eta hamar minutuz koadro zuri-beltzei begira egon eta gero ondorioztatzen du xakea Historia Unibertsalaren antzekoa dela: Errepresentazio arrazista, zuriak eta beltzak elkarren kontra jartzen dituen, hierarkia sozialak eta klaseen arteko desberdintasunak ezin nabarmenago agertzen dituen, matxista (erreginak gaitasun gehiago izanda ere bigarren mailako eginkizuna jokatzen duelako erregearen aldean) eta magnizidioaren zein gerlaren ederrespena bultzatzen duena. Begirada kritikoa baliatuz, ez dira gutxi mundu osoko injustiziei egiten zaizkien erreferentziak. Horren adibide da “Ikuskizuna” ipuin gogorra, irakurleari zapore mingotsa uzten diona zinez. Pertsonaiak argazki erakusketa batera sartzen dira. Argazkian afrikar batzuk ageri dira oinutsik eta horietako bik egurrezko zango bana daramate. Sei urteko haurra da horietako bat. Esanguratsua da narratzaileak dioskuna:

Pertsonen aurkako minen ondorioak dira, hanka erauziok. Non ote da, Angolan? Mozambiken? Sudanen? Beste hainbat estatutan izan daiteke Saheletik behera. Pertsonen aurkako minak han ipintzen dira, Mendebaldean fabrikatzen diren arren, Gasteizen, Markinan, Eibarren ere bai. Gerlak amaitutakoan ere, minak desaktibatzea oso garestia da eta, sarritan, bertan behera uzten dira. Mina bakoitza desaktibatzeak batz bestea 700 dolar balio du. (156)

Gure ustez, ipuinaren amaieran dator kontakizunari garraztasuna gehitzen dion pasartea, argazkiaren titulua ematean: “Ez duzu egundo jolastu euliei zangotxoak erauztera?” (157). Irakurlea interpelatzen duen amaiera makabro samarra, baina bizitza batzuek zein gutxi axola (edo balio) duten argi adierazten duena, 700 dolar baino ez. Bestelako kontakizun gogor gehiago aurki daitezke mintzagai dugun Sarrionandiaren obran. Funtzionarioek eguzki argirik gabeko ziegan preso dagoenari ematen dioten tratu krudela dakarkigu “Bonbila” ipuinak. “Ilustrazioaren filosofia” kontakizunean, berriz, esklabotzaren gaineko kontraesanak hartzen ditu hizpide narratzaileak eta beste istorio batzuetan, gizakiek egindako askak eta

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

bestelako sorkuntzek ekarri dituzten kalte latzak jartzen dira aurrez aurre, adibidez, Einsteinen energia atomikoari buruzko formulak Hiroshiman eta Nagasakin eragin zuen triskantza gogoraraziz⁴ edota gerla kontzeptua bera gizakiaren asmakuntza bat dela azpimarratuz. Gerrari buruz mintzo garelako, Sarrionandiaren pertsonaia gazteek maiz hartzen dute gerra jokotzat, baina esan dezakegu oro har haren aurkako ikuspegia ematen dela, hala gaiztoek zein onak galdu egiten baitute irabazi baino gehiago. Asmakuntza anker horri buruzko galdera interesgarriak ere plazaratzen dira, gure ustez, nahiko zailak izan daitezkeenak liburuak helburu duen 12 urteko irakurlearentzat; honakoa adibidez:

Joko bat asmatzea arau batzuk ezartzea dela. Mugak hipotesi fantastikoak ez ote diren galdetzen du narratzaileak, eta jarraian: “Armena, batak bestea hiltzeko tresna horien mundu guztia, ez ote da dena hipotesi fantastiko larri baten ondorioa. Ume joko bat balitz dena, errealitatearen eta gizalegearen zentzua galdutako batzuek benetakotzat hartzen dutena? (100)

Baina gizakiak eragindako krudelkeria horien artean, bada gizakiaren alderdi humanoa erakusten duen ipuinik. Alboko auzokoekin borrokan aritu ostean, belauna puskatu dion pertsona harrapatu eta mendekua hartzeko aukera duen gazte errukiorra aurki dezakegu “Borrokak” ipuinean. Liskarrak nola konpontzen diren irakasten da “A eta b arteko eztabaidak” kontakizunean, azpimarratuz norgehiagoka eta bestearen argumentuak ezereztu ordez, iritziak trukatu, batak bestearen arrazoiak konprenitu eta aintzat hartu dituztenean irabazten dutela eztabaidan biek. Ildo beretik, laguntasunari eta elkartasunari egindako kantua iruditzen zaigu “Adiskidetasuna” ipuina, gogorarazten baitigu adiskidetasunean dagoela bata bestearekin onak eta atseginak izateko dohain eta indarra, eta elkartasunaren funtsa ere bide beretik doala. Kulturantzitasuna da Sarrionandiaren obran ezinbestean aipatu behar dugun ezaugarrietako bat eta horren erakusgarri da, besteak beste, “Lagun desberdinak” kontakizuna, zeinetan jatorri ezberdineko haurrak batera jolasten duten eta elkar ulertzeko zailtasunak izan

⁴ Bitxikeria bada ere, aipatu nahiko genuke aurrerago iruzkinduko dugun *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak* liburuan berriz agertuko zaigula Hiroshimako eta Nagasakiko bonbardaketa.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

arren ikasteko aukera ematen dioten elkarri. Beste kulturei ateak irekitzea eta “bestearen” ezagutza bermatzea, hori da liburu hau osatzen duten kontakizunek egiten duten gonbita.

Sarrionandiaren HGL guztia kontuan hartuta, aztergai dugun obra hau da formatu esperimentalena duen lana. Badira joko eran sortutako ipuinak, idazleak proposatzen duen bidaian geldialdi bat egin eta jolas egiteko parada eskaintzen dutenak. Olgetarako tarte horretan, matematikak garrantzia hartzen du eta irakurle gazteari buruhauste bat baino gehiago ekarriko dio ziurrenik. Hitzen formak esanahi berezia hartzen du zenbait ipuinetan, besteak beste, bonbardaketa osteko txikizioa irudikatzen den ipuinean, zeinetan errautsez eta kez betetako eraikinekin sortutako letrek esaten diguten hiria ez dela gehiago hiri izango. Ezinbestean aipatu beharreko beste ezaugarri bat testuartekotasuna da, liburu honetan Sarrionandiak lotura ugari egiten baitu hala euskal tradizioko nola beste kulturetako erreferentziekin⁵. Literatur sistemarekin lotutakoak dira horietako asko: Errose Bustintza, Axular, Ixaka Lopez de Mendizabalek idatzi eta Jon Zabalo Txikik ilustratutako *Xabiertxo* eta *Umearen laguna* liburuak, Toribio Altzaga edo Joxemiel Barandiaran besteak beste, euskal tradizioari dagokionez; baina baita Gianni Rodariren *Fantasiaren gramatika*, Franz Kafkaren *Metamorfosia*, Victor Morenoren *Idazteko gogo*, Herbert George Wellsen *The Country of the Blind*, Anton Txekhov, Honoré de Balzac, Hans Christian Andersen eta Norman Douglass idazleak; Gilen Tell eta Gessler, herri musulmanetako umore ipuinetako Djeha pertsonaia, Sandokan, Mafalda, Spiderman, Gizon Ikusezina, Ulises eta Penelope edo greziar mitologiako Prometeo eta Epimeteo pertsonaiak. Mundu mailako zientzialari franko ageri dira, adibidez, Albert Einstein eta Niels Bohr fisikariak, Georg Christoph Lichtenberg zientzialari eta idazlea, René Descartes filosofo, matematikari eta fisikaria edo Euklides matematikaria. Filosofoak ere dezente aipatzen dira, taoismoaren sortzaile izan zen Laozi txinatarra, Heraklito, Kant, Pitagoras matematikari eta filosofoa edo Erasmo Rotterdamgoa adibidez,

⁵ Obra honen atzeko azalean aditza ematen da liburuaren proposamen didaktikoa eskura daitekeela (https://www.artedrama.com/pdf/idazlea_proposamen.pdf), eta bertan testuartekotasun eta lotura batzuk azaltzen dira. Horrez gain, Artedrama eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki konpainiek Sarrionandiaren lan honetan oinarritutako 50 minutuko ipuin kontaketa dramatizatua ondu zuten elkarlanean, 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa eta Ander Lipus, Miren Tirapu, Urko Redondo eta Ainara Gurrutxagak antzeztua.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

baita bestelako pertsona edo abesti ezagunak: Espartako gerlaria, Perikles politikaria, Mario Lodi hezitzaile italiarra, Reichelieu Kardinala, Wolfgang Amadeus Mozart eta Sam Cooke musikariak, The Beatlesen *Help!* abestia, Marlon Brando aktorea edo Eugenio Barba antzerti-ikertzailea besteak beste. Testu-generoari dagokionez, liburu honetan ipuinak biltzen dira, baina ezin aipatu gabe utzi tipologia askotako testuak aurki ditzakegula orriotan. Poetikoak dira batzuk, kronika objektibora gerturatzen dira beste batzuk; baina zenbaki eta letrez osatutako idazketa horretan, partitularik edo argazkirik ere aurki dezake irakurleak.

Liburu honekin amaitzeko, esan dezagun gugandik urrun dauden kulturak ekartzen dizkigula, eta abilezia handia erakusten duela Sarrionandiak ipuinen bitartez munduaren ezagutza gure esku jartzeko, izan ere, “Eskola” ipuinean esaten dena parafraseatuz, ikasten dugun lekua da eskola, baina toki hori edozein izan liteke: etxea, kalea, mendia, itsasoa, parkea, zinema aretoa, eta behar bada eskola. Baina, gehituko genuke guk, baita liburua ere. Beste bizitza batzuk bizi nahi dituen pertsonaia ageri zaigu ipuin batean, mila izaera eta mila bizimodu probatzeko antzerkia egiten duena. Guk ordea, antzerkiaz gain, aldarrikatzen dugu Sarrionandiaren istorioek beste pertsona batzuen azalean jarri eta haien bizipenak geure egiteko aukera eskaintzen digutela, bizi ez ditugun arazoak eta balizko egoerak konprenitzeko parada. Horrez gain, hainbat auziri begirada kritikoz erreparatzea eta gogoeta egitea eskatzen dute iurretarraren ipuinek, “Irakurtzea” kontakizunean esaten den bezala, irakurtzea, errime irakurtzea, gauzei soinu-banda ipintzea da; eta isilean irakurtzea, gogoeta-banda ipintzea.

Bestelako bidaia bat aurki dezakegu *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak* (2008) lanean. 12 urtetik gorako irakurlea helburu duen 109 orrialdeko obra honetan 7 herrialdetako istorioak biltzen dira, Pedro Osés ilustratzailearen irudiz lagunduta. Liburua 7 ataletan banatuta dago eta horietako bakoitzean haur batek hartzen du hitza, norbere burua aurkeztu eta bere eskualdeko ipuin bat kontatzeko. Boavistan jaiotako Cize neskatoak haurra zela Cabo Verden entzundako ipuin bat kontatzen du, umorez zipriztindutako kontakizun xamurra. Gauzak hitzez hitz ulertzen dituen Pelho Leloren ibilerak ematen dizkigu ezagutzera, amaren maitasuna duen arren, bere jokabide bitxiaren ondorioz jendearen isekak eta jipoiak jasaten

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

dituen gaztearena. Grazia berarekin kontatzen du Silvia madrildarrak aitona hondarribiarraren pasadizoa, bere patutik ihesi joan arren, destinoak bidean harrapatzen duen marinelarena. Ekuadorren jaiotako Diego Armando Carrera Montubioak berriz, Xibaroen ipuin bat kontatzen du, suaren lorpenari buruzkoa, hura lortu aurretik gure arbasoak nola bizi ziren kontatzen duena eta haren garrantziaz ohartarazten duena, baita suaren arriskuez gaztigatu ere. Konprometituagoa da guraso aljeriarrak dituen Mohamed Tagit-ek Djeharen ibileren berri ematen duen pasartea. Kontakizun horrek kolono frantsesaren zuhurkeria eta diruzalekeria jartzen du agerian eta jarrera hori behar gorrian bizi den familiari dirua eramateko gogor lan egiten duen gaztearen jokabidearekin jartzen da aurrez aurre. Botere-harremanak, gehien daukanaren zekenkeria eta behar gorrian dagoenaren azalean jartzeko ezintasunaz mintzo den kontakizuna da hau. Era berean, injustiziez betetako jendarte batean bizirautea lortzen duen gazte baten ibilerak dakarkigu ipuinak. Geografikoki bada ere, irakurle euskaldunari hurbilagokoa egingo zaion kontakizuna dakar Osamu Akutagawa japoniar gazteak, aitona-amonak Hiroshiman hil zirela aipatzeaz bat, parez pare jartzen baitira Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketak (1945) eta Durango eta Gernikako bonbardaketak (1937). Osamuk ez du Euskal Herria ezagutzen, baina gure ustez, aipatutako triskantzen parekatze horrek gure herriarekiko gertutasuna sortzen dio gazteari, ikusi berri duen dokumentala euskaraz ere egotea desio baitu. Antzeko triskantza jasan duten herrien arteko elkartasun edo enpatia keinu gisa irakur dezakegu pasarte hori. Liburuko 6. ipuinak ere Euskal Herriaz hitz egiten du eta agian irakurle batek baino gehiagok euskal gatazka deitu zaion auziari erreferentzia egiten diola antzemango du, nahiz eta horretarako metaforak eta sinboloak interpretatu behar diren eta ondorioz, gainerako kontakizunekin alderatuta konplexuagoa izan. Angelun bizi den Marie Jeanne Borthiry da ipuin honetako narratzailea eta beraren ahotik amonak kontatutako Haize Hegoaren elezaharraren berri izango dugu. Erronkari eta Larrañe arteko mugan kokatutako istorio hau herrien arteko mugez, agintarien erabaki bihurriez, erabaki drastikoek dakarten ondorioez eta herrien arteko elkartasunaz mintzo zaigu. Liburuarekin amaitzeko, iglutik irten, galduta ibili eta itsasoa deskubritzen duen Ukalik txikiaren istorioa kontatzen zaigu. Ez da kasualitatea istorio hau izatea liburu osoari irudia jartzen dion kontakizuna, izan

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

ere, Ukalik mutikoak egiten duen bezala, Sarrionandiak etxeko berotasunetik atera eta ezagutzen dugun espaziotik harago joateko gonbita egiten digu bere liburuetan.

Bidaiatzeko dei horixe bera aurkituko du irakurleak *Munduari bira eman zion ontzia* (2022) obran, 163 orrialde hartzen dituen lan honetan kresal eta espezia usaineko ibilaldi luze bat eskaintzen baita, Arístides Esteban Hernández “Ares” ilustratzaile kubatarraren marrazki ederrek lagunduta. 11 urtetik aurrerako irakurlea helburu duen obra honek Juan Sebastian Elkano getariarrak munduari emandako bira hartzen du abiagune. Betiko istorio politez aspertuta, benetako historiak kontatzeko eskatzen dio neskatoak amona historialariari, h larriz idazten den historia. Baina jakin badakigu benetako historia istorioekin eta ikertzaileen iritzi zein mitifikazioekin nahasten dela, eta hori da hain zuzen obra honetan azaleratzen dena, historia liburuetan maiz ezkutuan geratzen diren kontakizunak, mito handien atzean gordetzen diren gertakari ilunak. Lehenengo aldiz munduari bira eman zion itsasontziaren historia du oinarri liburuak, baina beste hainbat gai dakarkigu obrak, izan ere, neskatoak amonari egindako galderek hamaika bidetatik eramango dute kontakizuna, egitura dialogikodun forma emanez mintzagai dugun obrari. Batetik, munduari bira eman zion lehen espedizioaren datu teknikoak kontatzen dira: prestaketa lanak, espedizioan parte hartu zuten 5 ontzien izenak eta kapitainak, zeharkatutako lurraldeak, ezagututako gizarteak, haietan egindako aurkikuntzak, bidaia haietatik Europarrek ekarritako jakiak edota bidaiko balantze ekonomiko eta soziala. Bestetik, 1519ko irailaren 20an 5 ontziz osatutako armada bidaian irten eta 1522ko irailaren 7an Sanlúcarreko portura heldu arte tripulazioak bizi izandakoak aurkezten dira: matxinadak, traizioak, mendekuak, heriotzak, gaixotasunak, marinelek jasandako gosetea eta ur falta, gizakien salerosketa, truke komertzial injustuak eta tripulazioak eragindako bestelako kalteak.

Hainbat pasartetan botere harreman desorekatuak jartzen dira agerian, eta nola baliatu zuten haien boterea iristen ziren lurraldeetan salgaiak eskuratzeko. Dena den, europarren salerosketak ez ziren fruitu eta abereetara mugatzen eta amonak argi azaltzen du botere harreman horren baitan burutu zituztela espedizioan zihoazen hainbat gizonen era guztietako bahiketak eta bortxaketak. Ildo beretik, esanguratsua da “transformazio zibilizatzailea”-ren

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

atzean ezkututzen den supremazismo zuriaren eta genozidio kulturalaren adibidetzat har dezakegun Jemmy Buttonen historia larria, aztergai dugun liburuan amonak luze eta zabal azaltzen duena. Kolonizatzailer europarrek eragindako bestelako ankerkeriak ere ez dira falta mintzagai dugun liburuan: lurra kentzeko prozesuan eraildako milaka eta milaka aborigen, menpean hartu nahi zituzten herrixken erreketak, haien burua defendatzen zuten herrixken aurka mendeku hartzeko egindako errepresalia kanpaina bortitzak, europarrek eramandako gaixotasunen ondorioz desagerrarazitako herri indigenak edo europarren okupazioak eta bereziki Espainiak eta Portugalek menpean hartutako lurraldeak. Horrekin batera, izen batzuk aipatzen dira, historia liburuetan erraz asko aurki daitezkeenak baina gure ustez, liburuan aipatzen diren basakerien erantzuletzat hartzen direnak: Kristobal Kolon, Vasco Nuñez, Fernando Magallanes, Ruy Faleiro edo Napoleon Bonaparte, besteak beste. Kapitalismo koloniala aipatzeaz gainera, gaixotasun handiagoko gerrak ere hartzen dira hizpide liburuan, hala nola, Ukrainako gerra. Liburu honetan gerra ugari bistaratzen dira eta haurrak amonari galdetzen dio gerra ez ote den gaixotasun larri bat bezalakoa. “Ez da ohiko konparazioa, baina arrazoa duzu. Kutsakorra da, eta izurritea bezala zabaltzen da. Gaixotasunik hilgarrienetakoa da, gainera” (109). Handinahikeriak eta botere goseak eragindako gerrek guda gehiago baino ez dakartela erakusten dute amonaren hitzek eta mundua gudaleku bihurtu dutela gizonek. Horren aurkako jarrera hartzen da liburuan, adibidez, amonak azpimarratzen duenean globalizazioa ezin dela konkistan eta inposizioan oinarritu, edota defendatzean ekonomia eta politika egiteko beste era batzuk izan daitezkeela konkistaz eta botereaz aparte. Bestearen asimilazioa eta azpiratzearen ordeztasunak ezberdintasunak aintzat hartu eta elkarrekiko errespetuan eta (kultur)aniztasunean oinarritutako gizarteak eraikitzea proposatzen da amonaren hitzen bitartez, beste ikuspuntuak amaitzen dituen eta ideologia, orientazio sexual zein izaera ezberdinak onartzen dituen. Mugak deuseztatuz bestearen ezagutza eta onarpena erdiestea du helburu liburuak. Beste errealitate batzuk aitortzeaz ari garela, benetan interesgarria da emakumeen historiari buruz egiten diren hausnarketak. Liburuaren amaiera aldera, neskatoa konturatzen da amonaren kontaketan ez dagoela apenas emakumerik eta ageri diren bakanak biktimak direla. Horren aurrean, metafora bat baliatuz amonak *mikrohistoria* aldarrikatzen du:

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

“Horretara noa ontziekin. Emakumeak ontziak bezalakoak izan gara beti, historia egiteko orduan ahaztu beharrekoak. Gizon heroikoen historia hau amaitzen denean, igual emakume apalen bizitzarena errekuuperatuko da. Boterearen eta konkistaren kontakizunaren ordezt, ontziena” (160).

Aurrera egin aurretik, erlijioari buruz liburuan egiten diren oharrek iruzkindu nahiko genituzke. Magallaesen tokiak konkistatzeko eta bertako biztanleak kristautzeko beharra hartzen du ahotan amonak eta horri lotuta, erlijioei egindako kritikatzat har genezakeen pasarte bat aurki dezakegu, zeinetan Biblia, Korana edo Vedak delakoa kritikatzten den. Edo zuzenagoak izateko, dena zehazki azaltzeko liburu bat proposatzea eta bertan zehazten diren arauet men egin behar izatea gaitzesten da liburuan. Beste tradizio batzuetako testuak aipatu ditugula, Sarrionandiak eta Aresek ondutako lan honetan lotura intertestual ugari aurki ditzakegu eta baita mundu mailan ezagunak diren izenak ere, iurretarraren obran ohikoa den moduan. Julio Vernereren *Munduari bira laurogei egunetan* liburua eta Stephen Hawking-en *Denboraren Historia Laburra*, Euripides, Agatha Christie eta Jorge Luis Borges idazleak, *Jason eta argonautak*, Rosa Luxemburgo teorialari marxista, Francis Fukuyama politologoa eta bere *Historiaren amaiera*, Tomas Bridges misiolaria edo Nocolas Koperniko eta Giordano Bruno astronomoak dira aipatzen diren erreferentzietako batzuk. *Munduari bira eman zion ontzia* liburuarekin amaitzen joateko, azpimarratu nahiko genuke maiz bidaia heroiko gisa aurkeztu zaigun horren bestelako errelatua dakarkigula obra honek. 1519an 5 ontzitan abiatu ziren 237 pertsonetatik 21 baino ez ziren itzuli 1522an, ontzi bakarrean (Victoria). Kontratazio Etxeak, errege eta enpresari pribatuek bidaia hura positiboki baloratu arren (hildakoak ez zituztelako kontabilitatean kontuan hartzen eta egindako inbertsioa baino gehiago irabazi zutelako), giza galerak eta eragindako kalteak jartzen dira lehen planoan liburu honetan. Horrez gain, Elkano heroismorik gabeko pertsona gisa aurkeztzen da, momentuan bizi zituen zailtasunek bultzatuta itsasoratzeko hautua egin zuen gizon baten gisara, bere ertz guztiekin, eta ez zaio iskin egiten Elkanoren figura inguratzen duen polemikari. XIX. mendetik aurrera nazionalismo espainolak Elkanoren irudia nola baliatu duen azaltzen da, gogoraziz Miguel Primo de Rivera diktadoreak Elcano izena jarri ziola

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

Armadako eskola-barkuari, edo Frankismoak espainiar loria inperial galduen ordezkartzat omendu zuela getariarra. Horri lotuta, euskalduntasunari buruzko zenbait afera aipatzen dira. Azkenik, liburua neskatoaren desira batekin bukatzen da, etorkizuneko jendeari dakigunarekin eta ez dakigunarekin betetako oroigarri-ontzi bat bidaltzeko nahiarekin. Eta hori da, hain zuzen, Sarrionandiak liburu honekin egiten digun oparia, oroigarri-ontzi bat liburu forman.

Historiako pertsona polemikoak aipatu ditugunez, *Izeba Mariasunen Ipuinak* (2001⁶) lana hartu nahiko genuke ahotan, Cristobal Colonen ibilerak aipatzen baitira, haren gaineko polemikei ihes egin gabe. Sarrionandiaren hitzak eta Erramun Landaren ilustrazioak dituen 69 orrialdeko liburu honek 10 urtetik gorako irakurlea du helburu eta ilobak lehenengo pertsonan kontatzen ditu Izeba Mariasunen gaineko kontuak. Umorez zipriztindutako kapitulu laburrez osatuta dago eta irudi ugari tartekatzen dira. Bitxia da izeba, haur baten jokabidea erakusten du eta era guztietako ateraldi zoroak ditu. Ganbarako zurezko zaldi gainean eseri eta itsasoa zeharkatuz bidaiatzea gogoko du, baita irakurtzea eta ipuinak kontatzea ere. Irakurtzen edo ikusten dituen pelikuletan sartu eta haien barruan bizi dela dirudi eta pasarte horiek dira irakurlearen barrea errazen lortzen dutenak. Joko polita egiten da izebak maitemindua daukan Jenfri Bogar izeneko mutilaren eta *Casablanca* filmeko Humphrey Bogart aktorearen artean, ezen kontakizunaren une batean dena nahastu eta kotxe beltzean jasotzen du Jenfri Bogarrek izeba, etxe zurira abiatzeko. Bestelako loturak ere badira, esaterako Robinson Crusoearen liburu bat eramaten du izebak ilobarekin hondartzara doanean. Nahiko komikoa da “Izeba Mariasun eta gillotina” atala, zeinetan kontatzen den Izebak luzaroan Frantziako Iraultzari buruz besterik ez zuela irakurtzen eta garai hartan murgilduta bizi zela, errealtatetik aldenduta, etxe azpitik pasatzen ziren oinezkoiei Louis XVI, Danton, Robespierre edo Marie Antoniette deituz. Arestian aipatu dugun moduan, Cristobal Colon hartzen da ahotan eta hori da liburuko atalik kritikoena. Espainian Ameriketako “aurkikuntzaren” urteurrena ospatzen dela eta, gai horren inguruan berba egiten dute pertsonaiek. Cristobal Colon garrantzitsua izan ote zen galderari erantzunez, izebak Ameriketako deskubridorerik hoberena izan zela aipatzen du, baina irudietan bestelako irakurketa bat egin dezakegu, antagonikoa erabat. Natibo

⁶ Aztertu dugun edizioa aurkitu dugun berriena izan da, baina lehen argitalpena 1989koa da.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leihu irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

amerikar baten aurpegia ageri zaigu, “txapelduna” idatzia daraman itsasontzia txapel gisa jantzita duena. Aingurak natiboaren bekokiaren aurka egiten du talka, bekokian zauria eraginez. Negarrez ari da natiboa, minez intzirika. Espainiarren “aurkikuntzak/garaipenak” natiboei eragindako mina islatzen dute irudiok. Batzuen garaipena besteen minaren gainean eraikia. Ildo beretik, bada espainiarrekin eta natibo amerikarrekin lotutako beste irudi esanguratsu bat, boterea eta nagusitasuna nork duen ederki islatzen duena. Plater huts bat ageri zaigu. Alde batean natibo amerikarrak ageri dira, biluzik eta tresna bakar gisa gerritik eskegitako labana txiki batzuk dituztela. Plateraren beste aldean, berriz, espainiarrak ageri dira: errege erreginak, apaiz bat eta soldaduak, armak eskutan dituztela. Horizontaltasuna, biluztasuna eta labana txikiak batetik, eta armez jantzitako botere bertikala bestetik.

3) Euskal Herriko egoera soziopolitikoa

Aurreko atalean erakutsi dugun moduan, leihoak ireki eta itsasoak zeharkatuz urruneko lurralde eta kulturak ezagutzeko parada ematen digu Sarrionandiak bere liburuen bitartez. Dena den, jarraian datozen lerroetan ikusiko dugun moduan, iurretarrak Euskal Herriari ere heltzen dio eta gure herriak bizi izan dituen gatazkez berba egiteko tarte hartzen du. *Ainhoari gutunak* (1990⁷) da horren adibide garbia, izan ere, liburuak dituen 74 orrialdeetan euskal gatazka deitu zaion horri buruz hitz egiten da: gatazkaren jatorriaz, euskal preso politikoek kartzeletan bizi duten egoeraz, presondegietan jaiotzen diren umeez, motxiladun haurren egoeraz, euskal presoen sakabanaketa politikaz edo gatazkaren ondoriozko ihesaldiaz eta erbesteaz besteak beste. 12 urtetik aurrerako irakurleak ditu helburu obrak eta egileak berak (1545 argitaletxea, 2022) elkarrizketa batean argitu zuen nor den idazketa prozesuan zehar buruan izan zuen interlokutore imajinario hori. Azaldu zuenez, Martutenetik irten eta Euskal Herrian emandako tarte horretan urtebete inguruko haur bat bizi zen etxe batean egon zen. Ostean, hainbat etxetan egon zela aipatzen du eta gehienetan haur txikiak bizi zirela bertan. Haur horiekiko lotura berezi bat sentitzen zuela eta, mundua azaltzeko beharra sentitu zuen eta haur euskaldun horiek izan zituen buruan idaztean. Liburua

⁷ Aztertu dugun edizioa, erreferentzien atalean zehaztu dugun moduan, 1991koa izan da.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

28 gutunez osatuta dago, narratzaileak, justiziatik ihesean ari den iheslariak, Ainhoa neskatoari idazten dizkionak⁸. Beste lagun batekin batera, poliziarengandik ihesean zebilela bere gurasoek ostatu eman ziotela kontatzen dio lehenengo gutunean, eta nola zaintzen zuten ibiltzen ere ez zekienean. Gutun horretan bertan antzematen da narratzaileak lehen planoan jarri nahi dituela euskal gatazkaren alderdi zehatz baten ondorioak bizi dituzten haurrak, hau da, euskal militanteen seme-alabak (kartzeletan jaiotako umeak, motxiladun haurrak edo euskal militanteei etxea eman dieten familietako haurrak).

Nabarmentzekoa da *gure gerla* darabilela Sarrionandiak euskal gatazkari erreferentzia egiteko eta horrek narrazioaren aurrean jartzen duen begirada zein den iradokitzen du. Gainera, Ainhoari bidalitako gutunen igorlea kartzelatik pasatakoa da eta hori bihurtzen da hizketagai zenbait eskutitzetan. Presondegia zein gogorra den azaltzen dio txikiari eta euskaldunentzat kartzela norbere erreferentzietatik apartatzea zaila dela erakusten dio. *Gerrako haurrei* buruz hitz egiten dio, hau da, espetxeetan jaiotzen diren haur euskaldunak. Horrekin batera, gobernuak sakabanaketa politikarekin duen jarrera aipatzen da eta gobernuaren presioen aurrean amorerik ematen ez duten presoak edo *euskal erresistentzia* humanizatzeko eta duintzeko ahalegina egiten da: “Espainiar gobernuak edo bankeroek *fanatiko* eta *terrorista* direla esaten dute, iraultzaileek *emankor* eta *heroe* direla. Baina gure presoek badakite ez direla ez terrorista ez heroe, giza tamainuko euskal neska mutilak direla soilik. Eta giza tamainuan duintasun asko kabitzen da” (35-36). Esan duguna baieztatzen duen beste pasarterik bada, hala nola, El Puerto de Santa Marian zegoela eritutako txoria zaindu zueneko pasarte edo Carabancheleko espetxean zela, patiora erori eta zauritutako kurloi-kumeak hezi eta sendatzen zuten preso ugari zeudela kontatzen duen atala. Gutun batzuetan erbesteaz hitz egiten da (edo *herbestea* hartzen da mintzagai, Sarrionandiak bere lanetan darabilen grafia hobetsi nahi bada) eta atzerrialdian dagoenak pairatzen dituenak aipatzen dira: erdaretan adierazi beharra eta ondoriozko ama-hizkuntzaren (euskara) galera adibidez. Egoera horrekin lotuta, norberaren sustraiez eta aberriaz hitz egiten du narratzaileak.

⁸ *Habanako gaukaria* trilogian ere Ainhoa neskatoa ageri da, baina Sarrionandiak berak (1545 argitaletxea, 2022) argitzen du horko neskatoak ez duela zerikusirik mintzagai dugun obrako protagonistarekin.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

Euskal Herriaren zatikatzea aipatzeaz batera, mugen aurkako aldarria egiten da, baita nork bere herritartasuna aukeratzeko eskubidea aldarrikatu ere. Mugalariak ere hartzen dira ahotan, esaten baita sarritan haurrek gidatzen dituztela gauez muga igarotzeko batzen diren militante klandestinoak (*paparrean sugearen eta aizkoraren sinboloa daramatenak*, horrela egiten zaie erreferentzia). Beste gutun batzuetan ipuinak bidaltzen dizkio neskatoari eta horiek, narratzailearen aburuz, bidaia inizatikoak dira, haur protagonistak familiaren babesa utzi eta arriskuen eskualdera abiatzen delako. Neskatoari etxetik irten, mundu zabalaren aurrean jarri eta lurralde ezezagunean eta bakardadean galtzea beharrezkoa dela azpimarratzen dio, nahitaezkoa dela arriskua, beldurra eta oroimina sentitzea etxera su berriarekin itzultzeko eta ondorengoei suaren balioa adierazteko. Pasarte honek aurretik iruzkindu dugun *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak* laneko bi istoriorekin lotura egitera garamatza, Iglutik irten eta galduta ibili ostean itsasoa deskubritzen duen Ukalik txikiaren istorioarekin eta suaren bila abiatu eta hura lortuta etxera itzultzen den neska xibaroaren kontakizunarekin.

Dakusagun moduan, gutunetan gai ugari hartzen dira ahotan eta estiloa ere aldatu egiten da. Errealismo zurrunenari jarraikiz ondutako estiloa darabil batzuetan idazleak, baina bada fantasiatik edaten duen kontakizunik ere, estilo poetiko bati atxikitzen zaiona. Aurrez iruzkindu ditugun liburuetan testuartekotasunak Sarrionandiaren lanetan hartzen duen garrantzia azpimarratu dugu. Hemen ere, ez dira gutxi beste testuekin egiten diren loturak edota beste arte adierazpide batzuetako erreferentziekin egiten diren konexioak. Zinema mutuarekin lotzen diren Stan Laurel eta Oliver Hardy (Argala eta Lodia), Charlie Chaplin edo John Wayne aktoreez mintzo zaigu narratzailea, baita Telesforo Monzonek idatzi eta Mikel Laboak ezagutzera eman zuen “Haize Hegoa” kantuz ere. Beste gutun batean, haurtzaroa hizpide hartu eta gai horri buruz Rainer Maria Rilke poetak esandakoen berri ematen da. Irakurketa gomendioak egiten dizkio zenbaitetan igorleak, adibidez, Antoine de Saint-Exupéry-ren *Printze txikia* eta Atxagaren *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*. Horrez gain, literatura unibertsaleko (inoiz literatura “unibertsalik” egon dela onartzen badugu) klasiko bihurtu diren *Gulliverren bidaiak* liburuari buruz hitz egiten dio, azalduz, haurrentzat idatzia ez izan arren, ustekabean bihurtu zela haurren gustuko. Gulliverrek

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

egindako lau bidaiak aipatu eta *houyhnhnms* edo zaldi arrazionalen lurraldera egindako bidaian egiten du azpimarra; eta puntu honetan, Sarrionandiaren irakurle trebeak iurretarraren *Hmuy illa nyha majah yahoo* (1995) poema liburuarekin egingo du lotura ezinbestean, bereziki zaldiak Gulliverri agurrean botatzen dizkion berbekin. Aipagarria da ere *Robinson Crusoe* liburuari egiten zaion gorazarrea eta ezin ahaztu aurrez aztertutako *Izeba Mariasunen Ipuinak* lanean ere aurki dezakeela irakurleak Daniel Defoeren obraren aipamena. Narratzaileak haur literaturaren sorrerari buruz hitz egiten dio Ainhoari, gogoraraziz XVII eta XVIII. mendeko haurrentzako literatura gehiena guztiz umekeriazkoa, moralista eta aspergarria zela eta irakurleak asperdurara eramaten zituela amets egitera bultzatu beharrean. Ondorioz, umeek jende helduarentzako liburuak hartu zituzten, horietako asko gaur egun HGLko obra nagusi bihurtu direnak (irabazitako literatura). Haurrei zuzendutako liburu sinplisten ordeztu, honakoa aldarrikatzen du idazleak: “Hauxe da liburu hoberenen ezaugarria: imitazioa eragitea. Irakurleari, leitzearen atseginez gainera, berrizkiriatzeko desira biztea. Literaturarik hoberena kutsakorra da, eritasunik latzenak bezala” (52). Pasarte horien bidez haurren duintasuna eta literatura gozagarriko duten eskubidea aldarrikatzen duela iruditzen zaigu. Baina ez hori bakarrik, goiko lerroetan aipatu dugu hainbat pasartetan umezaroaren gaia ageri dela eta zehaztu dezakegu haurren aldeko deia ere aurki dezakeela irakurleak:

Errepasatzen dut ene haurtzaroa eta ez dut aurkitzen nagusiek haurrei buruz dituzten aurreiritziak frogaturik, sarritan nagusiek idiota balira bezala hitz egiten diegu haurrei, erdipertsonak balira bezala, munduan biziko ez balira bezala. Nagusiek asmatu ditugu *umekeriak*, ez hurrek. Umea, bere tipitasunean, pertsona osoa da eta munduarekiko bere jakinmina ase ezinezkoa [...] Haurrak bizitzaren aldi interesgarri batetan dauden pertsonak dira [...]. Haurren pertsonalitatea zabalik dago, bilakatzen, osatzen ari da. Guk ere haurren antzera bilakatu beharko genuke [...]. Gu gehienetan ez gara gehiago hazten, hertsu eta deformatuaz goaz. Horregatik ez dizut, Ainhoa, nagusiek haurrei ohi duten bezala panpinei edo pinpilinpausei buruz izkiriitzen. (31-32)

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

Umeek etengabe galderak egiteko duten jaidura hori goraipatzen da goian erakutsi dugun pasartean eta liburu osoan zehar antzematen da gai “serioei” buruz hitz egiteko jarrera edo inguratzen gaituen errealitateari buruz hitz egiteko nahia. Euskal Herriko historia gatazkatsuen jatorria azaltzeko adibidez, ipuin bat kontatzen dio Ainhoari. Inperio arrotz batek okupatutako herria eta horren aurka altxatutako errebeldeak, aizkora bat inguratuz errebeldeei agertu zitzaientzako sugea aizkora hura hartzeko eskatuz (Adan eta Evaren mitoa gogorarazten duena), gertaera horren ondorioz hasitako gerla krudel eta luzea... irakurle gazteari oharkabea pasatzen zaizkion kontakizunak agian, baina irakurle helduak euskal gatazkaren sorrerarekin lotzen dituenak zalantzarik gabe. Txema Larreak argitaratutako elezaharren liburuko ipuin bat laburbiltzen du narratzaileak gutunean, eta hor ere irakurketa politikoa egin daiteke, Espainiako erregearekin ezkontzeko Espainiara Baxenabarre eraman zuen printzesaren kontakizuna ageri baitzaigu (eta zehazten da ondoren Frantziak Espainiari irabazi ziola gerrate batean)⁹. Baina gure herriak bizitako gerrez gain, narratzailea atzerriko gatazkei buruz mintzo da eskutitzetan. Vietnamgo pobrezia, guda eta iparramerikarrek jaurtitako milioika tona lehergailu aipatzen dira, baita Namibiako gerra ere. Saharatik, Afganistandik, Palestinatik, Perutik, Sri Lankatik, Guatemalatik edo Turkiatik heltzen diren haurrak hartzen ditu ahotan narratzaileak, desagertu edo haur trafikoan zein haur prostituzioan erortzen direnak. Sahara bihurtzen da mintzagai gutun batean eta Euskal Herria bezala, koloretako mapetan existitu ez arren, bere independentziaren alde borrokan ari den herri gisa definitzen du. Sahara Mendebaldeko independentziaren aldeko borrokari buruzko datuak emateaz gain, espainiarren 1884ko okupazioa aipatzen da, euskaldun zenbaitek bertan izan zuten inplikazioa saihestu gabe. Bitxikeria bada ere, Narratzaileak Sahararekin tearekin egiten duten erritu baten berri ematen dio Ainhoari, Sarrionandiaren jarraitzaile abilak Gose taldearen “Bederatzi te kikara” abestiarekin lotuko duena. Liburuarekin amaitzeko, hainbat pasartetan gu geu izateko eta geure gisara pentsatzeko gomendioa ematen du narratzaileak

⁹ Printzesa horren arima Haize hegoa deitzen dela aipatzen da eta horrek Sarrionandiaren *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak* obrako Marie Jeanneren elezahararekin lotura egitera garamatza.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

(Kanten *sapere aude* aldarria). Nork bere luma kantaria eta doinu propio bat asmatzeko ahalmena dugula iradokitzen du eta besteen eredueta ez makurtzeko aholkatzen du¹⁰.

Hala formalki nola tematikoki beste modu batera bada ere, Euskal Herriak bizitako beste gatazka politiko-armatu bati buruz mintzo zaigu *Kolosala izango da* (2003) obra. Zuhurrak izanda, ez genuke HGL barruan sartuko, ez baitzen berariaz haur eta gazteentzat idatzia izan, nahiz eta haiek irabazitako literatur lantzat har dezakegun. Laburki bada ere, obra horren nondik norakoak iruzkindu nahiko genituzke. 138 orrialdeko lan honetan 11 urteko mutikoa da protagonista eta narratzailea. Lehen pertsonan ematen dituen kontakizunei esker, Kalaportu¹¹ herriko Gerra Zibil garaiko gertaerak ezagutuko ditu irakurleak, baita diktaduraren hasiera ere (gainera, amaieran Bigarren Mundu Gerraren etorrera iragartzen da, beste gatazka baten kontaketa irekiz). Istorioa 1936ko udan hasten da eta hortik abiatuta, gerraren igarotzea irudikatzen da. Hasieran, gerra gosez ageri da protagonista, ikuskizun eta jolas gisa ikusten baitu. Dena den, denborak aurrera egin ahala, mutikoak gerra bizi eta horren tragediak dastatuko ditu, ondorioz, gerraren gaineko ikuspegi aldaketa nabarmena ekarri. Errealismo handiko kontakizuna da mintzagai dugun nobela eta ematen diren benetako pertsona-izen, toponimo, data zein gertaerek istorioa testuinguratzen laguntzen dute. Benetan interesgarria da Sarrionandiak hautatutako begirada, haurarena; izan ere, haren inozentziatik ageriago aurkezten da gerraren ankerkeria eta zentzugabekeria. Gainera, umearen ezjakintasun edo neutraltasun horri esker, protagonista bando bateko zein besteko pertsonekin erlazionatzen da eta ondorioz, irakurleak ikuspuntu anitz ezagutzeko parada du. Bukatzeko, esan dezagun amaieran gerraren aurkako jarrera nagusitzen dela, ez baitago garailerik kontakizunean, gudaren ondorioz hondatutako bizitzak baino ez.

Euskal Herriko gatazka politikoez mintzo ez den arren, Sarrionandiak Jokin Mitxelena ilustratzailearekin batera ondutako *Harrapatutako txorien hegaleak* (2005) lana gainetik iruzkindu nahiko genuke. 63 orrialde dituen eta 8 urtetik gorako irakurlea helburu duen lan honek euskarazko eta ingelesezko edizioa biltzen ditu eta askatasunari eta indarkeriari buruz

¹⁰ Liburu honi buruzko azterketa xeheagoa aurki daiteke Urzelai-Vicenteren (2024) doktore tesian.

¹¹ *Lagun izoztuan* (Elkar, 2001) bezala, Kalaportu fikziozko espazio literarioan gertatzen dira ekintzak.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

hitz egiten du, animalietara mugatzen bada ere. Maddi da narratzaile autodiegetikoa, txoriak ikusi eta haien kantua entzutea gogoko duen neskatoa. Zaletasun horren berri izanda, Gorka lagunak tranpak eraiki eta txoriak harrapatzen dizkio. Maddik ordea, aske nahi ditu, baina Gorkak ez dio kasurik egiten eta hegaztiak harrapatu ez ezik, hil ere egiten ditu. Laboaren “Txoria txori” kantua entzun dezake irakurleak *leit motiv* gisa obra osoan zehar, izan ere, txoriak gertu nahi ditu Maddik, baina libre gura ditu. Neskatoak adierazten duen moduan, “txoriaren bizilekua zabala izan behar da. Aire, haizea, eguzkia, lainoak, izarrek behar ditu. Librea denean, horrela sentitzen da txoria ondo eta horrela da ederra, nahi duenean eta aukeratzen duen zuhaitzean pausatzeko gauza denean” (38).

Atal honetan sartu dugun hurrengo liburuak, *Gau ilunekoak* (2008), planeta urrun eta ilun bat du kokaleku, baina gerra du hizpide, eta gure testuingurura ekar daiteke. Joseba Sarrionandiak idatzi eta Maite Gurrutxagak arkatzez egindako tonu iluneko ilustrazioek¹² osatzen dute 68 orrialdeko lan hau eta liburuaren aurkezpenean haur zein helduentzako aurkeztu zuten. Istorioa Baionako portuko biltegian harrapatu, jendarmeez atxilotu eta epailearen aurrean dagoela gizonak ematen duen deklarazioarekin hasten da. Eguzkirik gabeko bere planeta urrun eta ilunean gertatutakoa ematen du jakitera eta narrazioan zehar lehen pertsonan kontatzen du nola iritsi zen almazenera. Lurpeko gordelekuetan bizi zirela azaltzen du, izarren argia besterik ez zutela. Izarren egarri eta argia noiz iritsiko zain bizi zirenenak, izarrek egunen batean haien planetara poza eta zoriona ekarriko zutela sinetsiz. Baina itxaroteaz aspertuta, gazte batzuk izarretara abiatu eta argi zatiak ekarri zituzten. Dena den, hasierako pozak berehala bihurtu ziren mesfidantza eta haserre; eta azkenean, eztabaidak zakartu eta borrokaldi latzera pasa ziren, gerra anker luze batera igaroz. Liburuan gerraren ondoriozko heriotza, hondamendia eta iluntasun garaiak azaltzen dira, baita gerraondoan galtzaileei ezarritako zigorrak, ezinikusia eta gaiak berba egiteko beldurra ere. Gazte batzuk berriz abiatu ziren izarren argi bila eta seme-alaben atzetik abiatu zen narratzailea, espazioan galdu eta Baionan agertu arte. Jarraian datorrena auresan dezake irakurle helduak, ez ordea haurrak: Epaileak ez du gizonaren deklarazioa sinesten eta immigrante ilegaltzat edo

¹² Gurrutxagaren ilustrazioek Vincent Van Gogh margolariaren *Gau izartsua* (1889) artelana gogorarazten digute, erabiltzen duen trazuagatik eta marrazkiek irudikatzen dutenagatik.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

espioitzat hartzen du. Hobekuntzen bila abiatzea, ohitura aldaketek sortu ditzaketen liskarrak, adostasun batera heltzeko ezintasuna, gerraren ondorioak eta immigranteei ematen zaien tratua ditu hizpide obra honek. Irakurketa zabalagoa eginez, sorterritik dakarten drama ulertzeko ezintasun edo ezaxola irudikatzen dela esan genezake.

Sarrionandiak izarretara begira jartzen du irakurlea aurreko obran eta jarraian iruzkinduko dugun lanean ere begirada zerurantz jasotzeko gonbita egiten du. *Mare. Ilargiari poemak* (2022) Ilargia oinarri hartuta ondutako poema liburu kolektiboa da, egile ezberdinen 29 poemaz gain, kantua, ilustrazioak eta informazio entziklopedikoa biltzen dituen (liburuan parte hartu duten poeten biografia laburrak eta euskal poesiaren zikloen azalpena, Iratxe Retolazak egina). Legezko orria delakoan aurreratzen zaigu liburu hau gazteen eskuetan lur hartu nahi duen hazi bat dela, haiengan mundu berriak ernatu, pentsamendua irauli, kultura jorratu eta sormena egurastu nahi duena. Ilargiari egindako 3 hitzaurrek ematen diote hasiera 171 orrialdeko lan honi eta bakoitza begirada diferente batetik eraikia dago. Hitzaurre zientifikoz eta filosofikoz gain, Sarrionandiak egindako hitzaurre literarioa aurki dezakegu, aitzinsolasetan luzeena. 1969ko uztailan lehenengoz Ilargira iritsitako hiru astronautak baino lehenago, eta imajinazioaren bitartez, idazleek ilargira egindako bidaiak jasotzen ditu iurretarrak, 150. urtetik 1959ra bitartean idatzitako lanak laburbilduz. Daniel Defoe 1705ean idatzitako *The Consolidator; Memoirs of Sundry Transactions from the World in the Moon* liburua iruzkintzen ari dela, munduan gertatzen den guztia ikusteko balio duten betaurreko miresgarri batzuk aipatzen dira eta horrekin lotuta, literaturak horretarako balio duela iradokitzen da. Honek Sarrionandiaren *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* lanean betaurrekoak eskatzen dituen neskatoa dakarkigu gogora.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

4) Bidaiaren amaiera: Tristurarik ez

Ikusten da porturik?
Ez dugu ikusten,
baina imajinatzen dugu.
Imajinatzen dugu eta
haruntz goaz arraunean.¹³

Bidaiaren amaierak tristura ekarri ohi dio bidaztiari, malenkonía eta nostalgia. Baina goibelaldi horri aurre egiteko gakoak eskaintzen ditu Sarrionandiak *Tristura* (2021) album ilustratuan, Irrimarra bikote sortzailearen marrazkiekin ondutako lanean.¹⁴ Oinarritzko emozioak lantzeko helburua duen Kuku emozio-programaren baitan argitaratu zen eta poza, tristura, haserrea, sorpresa, nazka eta beldurra lantzen duten 6 album ilustratuz osatutako bildumaren parte da. Bi urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako lan honetan, triste dagoen Idoia alaitu nahi duen neskato bat aurkezten zaigu. Laguna tristuraren eremutik ateratzeko helburuz, bizipoza ematen dioten egoerak biltzen hasten da, irakurleari eguneroko une txikietan gozamina aurki daitekeela gogoraraziz. Lagunarengana tristuratik ateratzeko arrazoiekin abiatzen denean aldiz, ordurako hura jada ez dago triste, Idoiak ere, protagonistak bezala, badituelako bizipozerako hamaika arrazoi. Hari horrez gain, bestelako gai batzuk azaleratzen dira album honetan, Sarrionandiaren obretan ohikoagoak direnak. Gorago iruzkindutako ataletan ikusi dugun moduan, iurretarrak maiz hartzen ditu ahotan gertakari historikoak, horiek modu kritikoan landuz. Hori horrela, album honetan Hondarribiko konkista edo frantsesen konkista aipatzen du protagonista gazteak, pasarte labur batean bada ere (eta inolako hausnarketa edo iruzkinik egin gabe), besterik gabe ama eta haurra burko borrokan jolasten hasten direnean, bata Hondarribia eta bestea frantses guztiak direla antzezten dutenean. Aipatu beharrekoa da album honek liburuetan murgiltzera bultzatzen duela irakurlea, izan ere, “oso pozgarria izaten da liburu bat irekitzea ere, etxeko leihoa zabaltzen den bezala, beste mundu eta beste bizitza batzuk ezagutzeko” (27), baitiosku

¹³ Gose. “Txalupa”. *Gosariak*. Shot! estudioa, 2014. Joseba Sarrionandiaren hitzak.

¹⁴ Arte Ederretan lizentziatutako Irene Irureta zumaiaarrak eta Karmele Gorroño galdakarrak osatzen dute taldea.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

neskatoak. Eta ez hori bakarrik, irakurketaz gozatzeraz animatzeaz gain, sortzaile rola hartzeraz bultzatzen du Sarrionandiak bere hartzailea, norberak bere mundua marraz dezan eta bere bizitza asma dezan, norberaren neurrira egindako mundu bat preseski. Laguntasuna eta haurren xalotasuna lehen planora ekartzen ditu 32 orrialde baino ez dituen lan honek eta irakurleari zoriontsu zerk egiten duen pentsarazten dio, eguneroko gertakarietan bizipoza bilatzera animatuz. Lehen begi-kolpean paratestuari erreparatuta tristurari buruzko liburua irudi lezakeen arren, alaitasunaren aldeko aldarrikapena da obra; edo alegrantziaren aldeko konjura, Sarrionandiaren letrak dituen eta Gose talde arrasatearrak musikatutako abestia¹⁵ parafraseatzea zilegi bazaigu.

Sarrionandiaren HGLn egin dugun bidaia amaitzeko, *Behinola* aldizkarian idatzitako 4 ipuin-poema laburrak aipatu nahiko genituzke. Concetta Probanzaren irudiz lagunduta datoz eta neskato bat dute narratzaile eta protagonista. Txintxoa izan arren otsoak jan zuen neskatoaren istorioa, alamera ematen ari den eltxoari zein animalia gogaikarria den esaten dioneko pasarte, Gabon gauean opariak birritan hartzen dituen sekretua edo amari gezurrak aitortzen dizkioneko momentua. Umorez betetakoak dira guztiak, irakurlearen irribarrea erraz lortzen dutenak.

5) Azken berbak

Erakutsi dugun moduan, Joseba Sarrionandiak leihoak irekitzen dizkio irakurleari, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko gonbita eginez. Bidaia horretan, Euskal Herriko egoera sozio-politikoaz aztertzeaz aukera ematen da eta gure herriak bizi izandako gatazka armatu zenbaiten berri ematen da (euskal gatazka batez ere, baina baita Gerra Zibila eta Frankismoa ere). Horrez gain, lurralde urrunetako kulturak eta gatazkek aipatzen dira, begirada kaleidoskopiko bat emanez. Kulturareniztasuna bultzatuz, elkarrekiko errespetuan eta askatasunean oinarritutako jendartearen aldarrikatzen da, beste ikuspuntuak ametitzen dituen eta ideologia, orientazio sexual zein izaera ezberdinak onartzen dituen. Horrela, maiz umorea eta ironia erabiliz, kritika egiten zaio kolonialismoari, indarkeriaren erabilerari, gerrari,

¹⁵ Gose. "Alegrantziaren aldeko konjura". *Gosariak*. Shot! estudioa, 2014. Joseba Sarrionandiaren hitzak.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

zentsurari, debekuei edo bestelako zapalkuntzei. Helduei zuzendutako lanetan bezala, HGLn ere erbestearen gaia ageri da maiz, eta horri lotuta, aberriaren edo euskararen egoeraren inguruko gogoetak. Gehienetan haur eta gazteak dira protagonista nagusi eta haien begirada inozentetik eraikitzen da kontakizuna, testuaren hartzailearen identifikazioa erraztuz. Sarrionandiak maiz interpelatzeko du irakurlea eta beraren testuek irakurle aktiboa eskatzen dute, sinbolo eta metaforen atzean ezkutaturako esanahiak argitzeko. Iurretarrak daukan ezagutza entziklopediko zabala agerian jartzen dute obretan ageri diren lotura intertestual guztiek eta horiek antzemateko irakurle trebea eskatzen da. Sarrionandiak haurren heldutasuna defendatzen du, nork bere gisara pentsatzera bultzatzen ditu irakurle gazteak eta moralismoan erortzen ez diren liburu dibertigarriak sortzen ditu, umeen galderei erantzuna ematen dietenak. Horrez gain, etxeko erosotasuna utzi eta mundua deskubritzera abiatzeko gonbita egiten da liburuotan, itsasoa hartuz abentura berrien abiapuntu gisa.

Bibliografia

- 1545 argitaletxea. «Zortzi ate: Joseba Sarrionandiarekin solasean». 2022ko abenduak 26. Bideoa, <https://www.youtube.com/watch?v=mjiO7qzqlNE>.
- Eizagirre Telleria, Nerea. 2022. “El exilio como lugar de enunciación en la obra de Sarrionandia: silencio y búsqueda de la escritura contrapuntística”. *452°F. Revista De Teoría De La Literatura Y Literatura Comparada*, 26. zenb. (otsaila), 44-62.
- Rodriguez, Eider. *Joseba Sarrionandiaren “Lagun izoztua” eleberriko hiru itsasoak. Irakurketa proposamen bat*. UPV/EHUko doktore tesia, 2013.
- Salaberria, Xabi (koord.). *Mare. Ilargiari poemak*. Oiartzun: 1545 argitaletxea, 2022.
- Sarrionandia, Joseba. *Ainhoari gutunak*. Donostia: Elkar, 1991 [1990].
- Sarrionandia, Joseba. *Izeba Mariasunen Ipuinak*. Donostia: Elkarlanean, 2001 [1989]. Erramun Landa ilustratzaile.
- Sarrionandia, Joseba. *Kolosala izango da*. Tafalla: Txalaparta, 2003.
- Sarrionandia, Joseba. *Harrapatutako txorien hegalek = Trapped bird's wings*. Donostia: Baigorri/Gara, 2005. Jokin Mitxelena ilustratzaile.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2025). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Nerea Eizagirre eta Mikel Ayerbe (ed.), *Joseba Sarrionandiaren literatura. Bitakora kaiera* (137-160. or.). UPV/EHU Argitalpen zerbitzua. ISBN/ISSN: 978-84-1319-684-8.

Sarrionandia, Joseba. *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*. Iruñea: Pamiela, 2008. Pedro Osés ilustratzaile.

Sarrionandia, Joseba. *Gau ilunekoak*. Donostia: Elkar, 2008. Maite Gurrutxaga ilustratzaile.

Sarrionandia, Joseba. *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako*. Donostia: Xangorin, 2010. Lierni Altube ilustratzaile.

Sarrionandia, Joseba eta Concetta Probanza. «Sormenez», *Behinola* 38 (2018): 33-36, <https://es.calameo.com/read/005509877110237c48916>.

Sarrionandia, Joseba eta Irrimarra. *Tristura*. Donostia: Ikaselkar, 2021.

Sarrionandia, Joseba. *Munduari bira eman zion ontzia*. Arre: Pamiela, 2022. Ares ilustratzaile.

Urzelai-Vicente, Ainhoa. *Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal haur eta gazte literatura garaikidean*. UPV/EHUko doktore tesia, 2024. <http://hdl.handle.net/10810/71427>.